

EMAKUME ERASOTUEN NAZIOARTEKO EGUNA

Manifestazioa egingo da gaur udaletxe aurrean

■ Gipuzkoako Emakume Koordinadorak konbokatuko du; 20:00etan ■ R.E. hernaniarrak langile bat bortxatu izana salatuko da ■ R.E-k dena gezurra dela dio.

GIPUZKOAKO Emakume Koordinadorak gaurko eguna aurkeratu du Hernaniko ustezko bortxaketa kasu bat salatuko. 1999-ko kontua da. Hernaniko neska batek bortxaketa denuntzia jarri zuen R.E.ren kontra. "Berak (neskak) ez zuen nahi eta gizonak egin egin zuen" -dio Emakume Koordinadorak-.

URTE BETE IXILIK

25 urtez azpiko neska hernaniarrak ixilik pasa du dena azken urtean. "Oso gaizki egon da, asko sufritu du eta orain artean ez du ezer esan." Orain ordea, "laguntza asko jaso

du" eta "ondo" omen dago. "Horregatik kontua ateratzea erabaki du eta gizonak egin duena ordain dezala nahi du."

EPAIKETA URRUN

Koordinadorak oraindik ez daki epaiketa noiz izango den. Bestalde, neskaren hitza beste lekukorik ez, eta ez dute garbi ikusten sententzia zein izan litekeen.

Bestalde, Hernaniko LAB sindikatuak bat egiten du gaurko mobilizazioekin: bai *Emakume erasotuen nazioarteko egunarekin*, eta bai "R.E.-k egindako bortxakeri erasoen aurkako mobilizazioekin".

"DNA GEZURRA DA"

R.E. jaunak Kronikari esan dio dena gezurra dela. Bere abokatuak, gainera, dio "bortxaketa arrastorik izan balitz", honez gero R.E kartzelan izango zela.

"EZ DAGO FROGARIK"

Abokatuak R.E "errugabea" dela defendatzen du: "Ez berak hala esan didalako, baizik eta bortxatu izanaren inongo aztarririk ez dagoelako". Orain arteko ikerketek "bortxaketarik ez dela izan" erakusten omen dute. "Lankideek ez zuten neska lanera sartzen ikusi, eta ez dute haren bertsioa egia denik ziurtatu" dio abokatuak.



Langileak atzo, Tiloseta berdintzen.

Tilosetan, arbola bueltak betetzen

Atzo, ostirala, Tilosetako plaza eta pasealeku osoan arbola bueltak *brea*z betetzen aritu ziren. Lehen lurrez inguratuta eta zokoune batean zeuden arbol ipurdiak eta orain dena berdindu egin dute. Arbola bueltak ez ezik, zorua gaizki zegoen lekuetan ere ari dira *brea* botatzen. Obrako buruetako batek Kronikari esan dionez, astelehenean bukatuko dute.

ELKARTE ARTEKO MUS TXAPELKETA

Ur Mia txapeldun!

■ Gure Txokori irabazi zion finala ■ Sari banaketa afaria, gaur, Gure Txoko elkartearen.

OSTEGUNEAN jokatu zen mus txapelketako finala. Azaro osoan Hernaniko jokalaria onetsuenak aritu dira, eta puntaren puntan *Ur Mia* elkarte bi jokalaria gelditu dira: Portu-

gal eta Legarreta. *Gure Txoko* Arenal eta Valentin bigarren gelditu dira. *Elur Txoriko* Valero eta Imaz hirugarren, eta *Peña Otaño*ko Arruti eta Sagarna laugarren. □

IGERIKETA

Hernaniarrak Bidebietan, gaur, neguko ligan

Herriko gutxi joango dira, proba luzeegiak direla-eta.



Hernaniko igerilekuan, saltatu aurreko galbanak kentzen.

IGERILARIEK Bidebietan dute gaur zita, arratsaldeko 16:00etatik aurrera. Infantiletatik hasita nagusietarainoko kategorietakoak joango dira Hernaniko taldeak;

baina, gutxi. Proba hauek (bai neguko eta bai udaberriko ligetakoak) Gipuzkoako txapelketarako gutxieneko denbora lortzeko balio dute-izaten dira. □

EREÑOTZU AUZOA

Barrikotea gaur Ereñotzun

UR MIA elkartearen *barrikotea* egingo dute, gaur, auzotar eta ingurukoek. 80ren bat lagunentzat jarriko dute afaria: bakailua saltsan eta txuleta; gazta, menbrilo eta intxaurrek; kafea eta eranskinak... sagardoa, berriz, Larraingoa: 20:30ak aldera.

PELOTA JAIALDIA KIROLDEGIAN

Esnal-Galartza V Lauterdiko Txapelketan eta Legorburu-Bazeta // Oiaga-Oregi lehen partiduan.

■ Esnalek miraria beharko luke finalera pasatzeko ■ Gaur gaueko 22:00etan.

ADARRAGA

Konfitegia
Pasteldegia

Urbietan Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10



HERNANI (Gipuzkoa)



Antziola-Motor Zerbitzu Ofiziala

- ▶ Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziaketak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu



Antziola auzoa 12 - HERNANI
Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96



Printzako txipsoak
Industri eta dekonaziorako pinturak
Pintatutako papereak
Kardaberaz 45 - Tel 943 552131 - HERNANI

Lau Haizeta

SUMINISTROAK KÄRCHER
Antziola 10
Tel 943 55 25 61
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

Skoda Octavia. Bizitza osoa



OCTAVIA bat 1.995.000 ptatik* (11.990,19 euro*)
*Penintsula eta Balearretako gomendatutako prezioa Skoda Octavia 16V Classic Garraio eta zergak barne. 1 euro=166,386 pta.

MENABI

Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 43

Kantuz koruak eta txistulariek kontzertua dute gaur Sandiusterrin

■ Arratsaldeko 19:00 etan izango da.



Musiko sarituak atzo udaletxeko areto nagusian, beren plakak eskuetan dituztela.

SANTA Zezilia eguna izan zen asteazkenean eta ospatzeko musika emanaldi asko antolatu da herrian. Gaur, larunbata, Txistulari taldea eta Kantuz korua izango ditugu Sandiusterriko aretoan. Bukaeran, berriz, biak elkarrekin arituko dira.

TXISTULARIAK HASI

Herriko txistulari taldeak hasiko du saioa. Gero, Kantuz

abesbatzak kantatuko ditu zazpi kantuz; eta, azkenean, biek elkarrekin kantatuko dute: *Euskal bilera*, *Joana Bixenta Olabe*, *Kalez kale* eta *Ixil ixilik*.

25 URTE BANDAN

Herriko bost musikariek oroi-garriak jaso zituzten atzo bakoitzak bere bandan 25 urte bete dituztelako. Txistulari Bandan Garbiñe Tijerok eta Ramon Iriartek daramazkete 25

urte; Musika Bandan, berriz, Alfredo Diez, Pedro Carcamo eta Felix Lerak bete dute mende laurdena: Zorionak. Mertxe Etxeberria alkateak eskerroneko plaka bana eman zien bostei.

Bestalde, bihar ere badira Santa Zezilia kontzertuak: mezetan, parroko koruak kantatuko du; ordubatean, Musika Bandak emango du udaletxeko arkupeetan. □

JASOTA BEZALA

HERNANIKO UDALETXEARI ELKARTASUNA

Urtean zehar baditugu Euskal Herrian inposaturiko hainbat jai egun. Euskal Herriak nortasun propioa duela pentsatzen dugulako eta gure jai egunak aukeratzeko ahalmena dagokigulako egun hauetan lan egite-

ko erabakia hartu genuen Udaletxeak, hainbat dendarik, ikasle talde batek eta AEKk. Hernaniko udala epaiketa batean jarri dute orain, hau dela eta idatzi honen bidez gure elkartasuna adieraztearekin batera ostiralean goizeko

hamarretan Donostiako Lasala plazara joateko gonbidapena luzatzen dugu. *Miner janaridenda*, *Gorri*, *Urbietta kopiak*, *Andrekale*, *Axel*, *Alimentación Ibañez*, *Arka*, *Gheto diskak*, *Gausapa*, *Ikasle talde bat*, *AEK*.

ASTEBURUKO PARTIDUAK

LARUNBATA

■ FUTBOLA

Emakumezkoen liga:
Haranen 15:30etan.
Usurbil - Hernani

Gorengo maila: (mutilak)
Zubipen 16:30etan.
Hernani-Zestoa

Gazteen liga nazionala:
Fanderian 16:00etan
Union Txiki-Hernani

Gazteen Ohorezko liga:
Zubipen 12:00etan
Hernani-Aldapetarrak

Kadeteen Ohorezko liga:

Garmendipen 10:30etan
Lagun Onak- Hernani

Haurren Ohorezko liga
Zubipen 10:30etan.
Hernani-Aitzgorri

■ ERRUGBIA

2 Euskal liga (Mutilak):
Landaren 16:00etan
Hernani-Sestao

Jubenilak Euskal liga:
Elorrioren 15:00etan.
Elorrio-Hernani

Kadeteak Gipuzkoako liga
Anoetan.
Berar Bera- Hernani

■ BOLEIBOLA

Euskadiko liga
Kiroldetxean 17:00etan
UPV Hernani-CV Rekalde

■ WATERPOLOA

Euskal Herriko 2. Maila
Iruñean 17:30etan
UPNA-Hernani

IGANDEA

■ FUTBOLA

3. maila: (Mutilak)

I.Kortazararren 17:00etan
Baskonia-Hernani

Gazteen 2. maila
Zubipen 15:30etan
Hernani-Ostadar

Kadeteen 2. maila
Zubipen 11:00etan.
Hernani-Beasain

■ ESKUBALOA

2. Nazionala
San Adrianen 12:30etan.
San Adrian-Hernani



Eizmendi eta Apezetxea, atzo, nor baino nor.

✓ HERRIKO XAKE TXAPELKETA

Lehenengo fasea jokatzen ari dira. Berrogei parte hartzaileak taldekoen artean jokatu eta guztiak pasako dira bigarren faseara; oraingo faseak, hurrengoko parekatzeak erabakitzeko balioko du.

✓ SAGARDO TXAPELKETA XALAPARTA ELKARTEAN

Gaur izango da afaria. 10 sagardogile izango dira gaur Xalaparta elkarteko sagardo lehiaketan: Akarregi, Alberro, Alzueta, Eizmendi, Elorrabi, Elutxeta, Eula, Otsuenea, Oiarbide eta Zelaia.

✓ BOLEIBOLA

UPV Hernani liderrak CV Rekalde hartuko du Kiroldetxean, gaur 17:00etan. Hernaniarrek lider jarraitu nahi badute irabazi beharra dute gaur. C.V. Rekalde seigarren postuan da.

HERIOTZAK

Julio Castro Fernandez

Igandean hil zen 56 urte zituela.

Hileta elizkizuna gaur, astelehena, arratsaldeko seietan Juan Baiatzailearen Parrokian.

AGENDA

❖ ERAKUSKETA

Alberto Elosegiren argazkiak.
Txema tabernan.

Vietnam-i buruzko argazki erakusketa
Zumardi tabernan.

❖ ZINEA

El Profesor Chiflado
Biterin, 17:00, 19:30 eta 22:30etan.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
► Udaltzaingoa: 943 333288
► DYA: 943 464622
► Autobusak: 943 556662
► Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

► Egunez: Aizpuru
Latxunbe berri, 11
☎ 943 553582
► Gaez: De Miguel
Lasarte. Nagusia, 32
☎ 943 361556

IRAGARKI MERKEAK

► Neska bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.

☎ 943.557190



Zuek ezin duzuenean bidetari jarraitu: hortxe gaude. **Animatu eta etor zaitetzte!**

- 1 eta 8 urte bitartean.
- Orduzabala: 8etatik 20ak arte
- Ikastolara haurrak eramanez edota ekarri.
- Urtebetetze jaiak ere ospatzen

HAURTZAINDEGIA - LUDOTEKA ORDUKA

Latxunbe-Berri, 2 - HERNANI

☎ 943 55 22 00